

Liburutegien legea: lehengo lepotik burua

Lege-proiektu honek Nafarroa eta Iparraldea ez ditu kontuan hartzen. Jarrera hau usadioaren kontra doa. Nafarroako liburutegiek eta baita Euskadiko liburutegiek ere, inoiz ez dituzte muga administratibo hauek ezagutu

GERARDO LUZURIAGA SANCHEZ / Liburuzaina

Gobernua osatzen duten hiru alderdi politikoek Eusko Legebiltzarrean aurkeztu berri duten Euskadiko Liburutegien legeak ez du ezer aldatuko. Zoritxarrez, lege honek Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 legearen akats berak errepikatzen ditu. Ondarearen legeak Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionala indarrean jarri zuen, eta agiritegi, liburutegi eta museoetako azpiegitura garatzeko asmoz sortu zen, baina emaitzak ezin eskasagoak izan dira.

Orain, duela hamasei urte bezala, lege honek liburutegien arloa ezin izango du arautu, alde batetik, horretarako eskumenik ez duelako, liburutegi sistema honek udal liburutegiak baino ez dituelako barnean hartzen; eta bestaldetik, ez duelako autoritaterik politika bibliotekario komuna herri osoan sortzeko, sistema hau elkarlanean eta borondatezko koordinazioan oinarritzen baita.

Horrela bada, liburutegi garrantzitsuenak sistematik kanpo gelditzen dira; eta sistematik at gelditzen diren liburutegi horiek jarraituko dute arauak ezartzen, eta Euskal Herriko Sistema bibliotekarioaren buruak izaten. Ezin dugu ahaztu bibliotekonomiako lanetan, oraindik Espainiako ereduak soilik erabiltzen direla. Denok dakigu urte luzeetako ohituraren poderioz, gaztelania izan dela lan hizkuntza nagusia, eta nagusiki Espainiako arauak erabiltzen jarraitzen direla. Egoera honen aurrean, euskaldunak eta abertzaleak garen aldetik, ezinegon nabaritzen zaigu, eta aldatzeko unea iritsi delakoan gaude.

Ikus ditzagun honen gainean Gobernuak aurkeztutako lege-proiektuaren gabezia nabarmenenak zeintzuk diren: batetik, Liburutegi Sistemak ez du edukiko eskumenik liburutegi-zerbitzuen plangintza aurrera eramateko, argi eta garbi adierazten baitu plangintzaren koordinazioa baino ez dagokiola; eta bestetik, Sistemaren buru izango den Euskadiko liburutegiak ez du autoritaterik edukiko bibliografia-ondarea biltzeko, kontserbatzeko eta zabaltzeko, gainontzeko erakundeen arteko koordinazio-lana burutzea mugatuko delarik.

Euskarari dagokionez, aurreko artikuluan aipatu nuen bezala, euskara erabat baztertua dago lan teknikoetan, gaztelania hutsez egiten dira eta liburutegi-katalogo gehienak ere gaztelaniaz daude. Honen gainean Gobernuak araututakoak lehengo lepotik burua izaten jarraitzen du, liburutegien munduan euskararen egoera ezagututa, lege guztietan jartzen duen «Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial bien erabilera bermatzea» leloa errepikatuzera mugatzen da. Orain arteko jarrera aldatuko

bada ezinbesteko baldintza da legean espresuki euskararen tratamendua arautzea; hortaz, legeak, gutxienez, lan teknikoak, katalogoak eta baliabide teknikoak euskaraz sortzeko agindua jaso beharko luke.

Azkenik, lege-proiektu honek Nafarroa eta Iparraldea ez ditu kontuan hartzen. Jarrera hau usadioaren kontra doa. Nafarroako liburutegiek eta baita Euskadiko liburutegiek ere, inoiz ez dituzte muga administratibo hauek ezagutu. Izan ere, mendeetan zehar eta baita azken urteetan ere, unibertsitateetan eta zientzia munduan Euskal Herria kultur eremu gisa hartu dute, besteak beste, Nevadako Renoko Unibertsitatean, British Libraryn edo Britannica entziklopedian; eta zer esanik ez Hego Ameriketako unibertsitateetan. Era batean edo bestean, Euskal Herriko administrazioen arteko harreman ofizialak lege baten bitartez sustatu beharko lirateke.